

0. SARRERA

Gu, Ayshane Lijo, Eder Arteche, Gorka Gil eta Unai San Anton gara, ENHES (Erandioko Negozioetan Hitzordua Eskatzeko Sarean) enpresaren sortzaileak.

Gure enpresaren bitartez Erandioko negozioetan eskariak edota hitzordua online eskatzeko aukera ematen diegu gure bezeroei. Webgune bat da hau, erabilera erraza duena ahalik eta pertsona gehien erabili ahal izateko. Webgune honek bertsio premium bat izango du eta haren erabiltzaileak deskontu bereziak eta hitzordua eskatzeko denbora limite eza jasoko dute.

ENHES

Gure bezeroak 2 multzotan banatzen dira; enpresak, haien bezeroen hitzordua eta eskariak kudeatzeko baliabideak jasoko dituztenak; eta erabiltzaile partikularrak, hitzordua eta eskariak eskatzeko aukera jasoko dutenak.

Enpresan 5 pertsona egongo gara lanean; lau bazkideak (Eder, Unai, Ayshane eta Gorka) eta programatzaile bat, webgunearen mantenuaz arduratuko dena. Hori ordaintzeko eta etekina ateratzeko hainbat diru iturri ditugu; hala nola, Cookieak, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza (enpresa berritzaile bat sortzearena), egindako publizitatea, premium bertsioarekin jasotako dirua eta abar.



Ez dugu denda fisikorik izango bezeroekin harremanetan egoteko; beraz, kontaktuan jartzekotan, telefonoz deituz edo webgunearen bidez izan beharko litzateke. Horrez gain, hainbat sare sozial izango ditugu (Facebook, Instagram eta Twitter), kontaktuan egotea ahalbidetuko dutenak. Kanal horietatik lortuko dugu ditugun bezeroak mantentzea eta beste berriak lortzea.



Enpresa honetan hainbat dira izango ditugun kostuak. Kostu handienak lan egiteko lokalaren alokairua, marketinean inbertitutakoa eta programatzailearen soldata izango dira, baina beste kostu asko ditugu; hala nola, gailu elektronikoak (telefonoa + zuntza, ordenagailua, Wifi...), alokairuak, lokalaren ura eta elektrizitatea.

Gure webgunea ikusteko hemen link-a:

<https://sites.google.com/ikasle.eus/enhes/enhes>

